

II. Gizarte Langintza ZIENTZIA GISA

4. Gizarte-langintzaren OINARRI ZIENTIFIKOAK

- Gizarte langintza bere nortasuna landu du XX. mendean zehar.
- Horretarako: beste zientzietatik ekarpenak hartu + bereak propioak
Ezaugarri propioak+ gizarte zientzien ezaugarriak

4.1. Gizarte-langintza ulertzeko ERA desberdinak

- Izaera definitzeko zalantza asko: kontzeptu errepikakorrak agertzen ziren, modu desberdinean formulatuak zirenak. ADB. Izenean bertan ikus dezakegu (gizarte langintza, laguntza, zerbitzuak...) praktikotasunean denak dira berdinak.

4.1.1. Gizarte-langintza ulertzeko FASEAK

- 1) Laguntza teknikoa: laguntza emateaz gain, lagunduari bere duintasuna aitortu behar zaio.
- 2) Jarduera aurrezientifikoa: garrantzia parte-hartzaileari. Gizarte funtzioetan erreparatzen du = ZERTARAKO?
- 3) Lanbide espezifikoa: lanbide gisa ulertzen da
- 4) Kontzeptualizazio saioak: zientziazat.

4.1.2. Gizarte-langintza ulertzeko MODUAK

- 1) Artea: Ezin da ikasi, bereko zeozer da
- 2) Teknologia: mekanismoak, teknikak ...
- 3) Lanbidea: praktika, lanean egotea
- 4) Zientzia: ikasi

4.2. Gizarte-langintza ERAGIN duten ZIENTZIAK

- 1) Psikologia: funtzionalista eta analista
- 2) Soziologia: funtzionalista eta marxista
- 3) Medikuntza, zientzia politikoak, antropologia, ekonomia, historia ...
- Ez da edozer isolatua, beste zientzien batuketa baizik: zerikusia dute denek.

4.3. Gizarte-langintzan eragiten duten TEORIA FILOSOFIKOAK

4.3.1. FUNTZIONALISMOA

- Objektibitatea
- Praktikotasuna bilatu behar da, eta arinen konpon daitezkeen arazoetan esku hartu, larriagoak direnak gerorako utziz
- Objektibotasuna eta naturalaren oreka aldarrikatu

- Elementu bakoitzak funtzio bat du: funtzio batek huts egitean: PATOLOGIA sortu: konpondu beharra
- 2 era nagusitan eragin:
 - Enpirismoaren nagusitasuna: esperientzian oinarritzen da. Interpretazio koherentea + objektiboa. Informazioa biltzea. Esku hartze prozesu egokia sortzeko (berdintasun printzipioz, orokortasuna + erregulartasuna, subjektibitatearen bazterketa)
 - Subjektuari emaniko gehiegizko garrantzia: gizabanakoaren beharrianak ase. Subjektuaren arazoari zuzenean heldu beharra. Banan banan eta gauzatzen diren heinean konpondu. Gizakiaren patologiatzat hartu; delinkuentzia, prostituzioa ...

4.3.2. MARXISMOA

- Determinista
- Arazoak euren osotasunean konpondu behar dira: ezin dira atalka konpondu
- Ikuspegi dialektikoa: gatazkan oinarritua, gizarte harremanak produkzio bitartekoen jabetzez baldintzaturik daude. Klase borrokan eragin, langile klaseek askapena aldarrikatzen dute
- Ikuspuntu marxistatik gatazka ezinbestekoa da: gizartearen aldaketa estrukturala, gizartea baita arazoaren iturria.
- Klaseen arteko desoreka azaltzea. Zelan batzuetan goi mailakoek behekoak zapaltzen dituzte: menderakuntza hori azaldu beharra.

4.3.3. TEORIA KONPRENTSIBOAK

- Subjektiboa
- Gizakiaren ahalmen handia da, eta berak du bere arazoak konpontzeko giltza
- Ez da nahikoa gizakiaren jarduera deskribatzea, ulertu behar da norbanakoaren asmoa jarduera hori egitean
- 2 ildo nagusi: interpretazio-joera eta humanismoa. Gizakiak hausnartzeko ahalmena du, modu kontziente batean
- Artetzat

4.4. Gizarte-langintza ZIENTZIA BEZALA

4.4.1. Gizarte-langintzaren IZAERA zientifikoa

- Bere zereginetan gizarte-langintzak ondoko pausuak jarraitzen ditu: atal batzuk aldarrikatzeko nahia, datu-bilketa, ezagueraren bilakaera, teoria lantzeko asmoa = bide bat baino gehiago
- TEORIA + PRAKTIKA: ZIENTZIA
- PRAKTIKA soilak: LANBIDEA

5. Gizarte-langintzaren OBJEKTUA

- Zientzia ezagutzarekin dago harremanetan eta ezagutza egon dadin beharrezkoak dira: Subjektu bat (ezagutzeko ariketa egiten duena) + objektu bat (ezagutzaren helburua izango dena) = 2en arteko harreman praktikoa eta testuingurua (historiko eta espaziala, ezagutza kokatzeko
- Objektuaren espezifikotasuna bere zientziatik bereizteko balio du

5.1. Gizarte-langintzaren OBJEKTUAREN INGURUAN

- Lehentasuna ematen zaio norbanakoari edo inguruari
- Teoria eta praktikaren arteko= hobe bien arteko gehitzea
- Hiru elementu bereizten dira: gizakia, arazoak eta konpontzeko erabakia (plangintza bat betetzen du ezinegona hobetzeko)

5.1.1. Gizarte-langintzaren OBJEKTU BIKOITZA

- Gizakia, gizartea, gizarteko arazoak ... gizarte dimentsioak hobetzea
- CONDE -ren arabera, nahiko onartua dago gaur gizarte-langintzaren barruan objektu bikoitza izatea
 - Gizakiaren gizarte-problematika (nire problematika gizarteari arazo bat sortzean): ez dugu esaten gizarteara norbanakoa izan daitekeelako. Gizakiaren berezko gizarte-bilakaera oztopatzen duen egoera bat gertatu da, eta hura gainditzeko erabaki kontzientea da. Arazo fisiko geografikoak, ekonomikoak, kulturalak, azpiegiturakoak, elkarbizitza, politiko administratiboak ...
 - Gizakiaren gizarte-operatibitatea: oztopoak+baliabideak horiek konpontzeko+gizakiaren gaitasunak: autoebaluaketa egiteko gai izatea eta benetako aukera errealei aurre egiteko arazoari. ADB. Tratu txarrena: emakumeak badaki baina ezin du. Gizakiak baditu berezko dohainak bere ingurura egokitzeko eta hura aldatzeko. Ahalmen horiek aztertzea eta gizarte ezinegonezko egoeren aurrean ahalik ea modurik eraginkorrenean erabiltzea da gizarte langintzaren zereginetako bat. Horren barruan sartzen da: autoebaluazioarako ahalmena eta egoera aldarazi dezaketen ekimenak abiatzeko ahalmena autoebaluazioan hartutako irizpideen arabera.

5.1.2. GIZARTE-EZINEGONA ETA GIZARTE-LANGILEA

- CONDE ren nahiko antzekoa
- TERESA ZAMORILLO ren ustez, gizarte langintza norbanakoaren gizarte ezinegonarekin dago harremanetan, baina 2 ikuspuntutatik ikus daiteke: SUBJEKTIBOA: bizipenen arabera nola jasaten duten ezinegona eta OBJEKTIBOA: sorreraren arabera. Norbanakoaren gizarte-araoen egiturari begira

- Biak dira beharrezkoak, objektibotasuna eta subjektibotasuna
- Arazoa zehaztu eta objektibotasuna eta subjektibotasuna erabiliz, gizarte-langileak arazo hori konpontzeko ahalegina egiten du
- Gizakiaren arazoen aurrean, beraz, gizate-langilea beharrizanaren eta asebetetzearen artean mugitzen da.

5.2. Gizarte-ARAZOAK

- VS Arazo pertsonala
- ADB. Matxismoa (gizarte/kultura desberdinetan)
- Ez dira unibertsalak, definitu egin behar dira.
- Eragina: bizitzako arlo askori= erreakzio bat gizartean beti

5.2.1. BEHARRIZANAK

- Gizarte arazo bat munduan
- Ez da batere erraza zehaztea: oso subjektiboa
- Aldatzen da; arrazoi historiko, kultural, ekonomiko, eta abar.
- Gabezia egoera bat: subjektiboa da baina gizarteak objektiboa bihurtzen du.
- Oinarrizko eta bigarren mailako beharrizanak
- Gizarte inguru bati loturik agertzen dira: gauza bat da gure arazoa eta bestea gizartearena

5.2.2. BALIABIDEAK

- Beharrizan baten aurrean baliabideak neurtzen ditugu.
- Batzuetan nahikoa da gure baliabideak biltzea ingurutik: hau ez da gizarte arazoa
- Baliabide nahikorik ez dagoenean: gizarte arazoa da. Gizarte baliabideak zeintzuk diren jakin behar dugu. Gaur egun, gizarteak nolabaiteko ardura erakusten du, eta horretarako baliabide batzuk ipini behar ditugu.
- Estatuak ipintzen dituzte baliabide horiek gehienetan eta ekonomikoak izaten dira
- Zailagoa ekonomikoak ez diren beharrizanei aurre egitea
- Baliabideak kudeatu egin behar dira

5.2.3. Gizarte-arazoak

- Gizarte-arazoak aztertzen ditu. Ondo definitzea eta ondo aztertzea.
- Testuinguru historikoa, kulturala, soziala, ekonomikoa etbr
- Arazo pribatuak eta sozialak
- Aldagarriak dira gizartearen arabera eta espazio eta denboraren arabera
- Gizarte-arazoak oso modu desberdinean ulertuko direla bizi garen inguru, kultura eta herriaren arabera.
- Ikuspuntu teorikoak:
- ESCARTIN ETA SUAREZEN ustez:
 - Gizarte arazoak ez dira abstraktuak, denbora eta espazioan ondo kokatutako gizarte arazoak baizik, gizarte dimentsioa hartu dutenak

- Gizarte langintzak ez ditu arazoak soilik aztertzen. Aregao joan nahi du, arazoa desagerrarazi egin nahi du
- Gizarte-langintzaren objektua, hortaz, erreal eta zehatza da, esku-hartzea eskatzen duena; jarrera intelektual bat, aldi berean teoria sendo bat eskatzen duena

5.3. Gizarte-langintzaren HELBURUAK. Bilakaera historikoa

- Gizarte langile guztiek partekatzen dutena. Helburuak: balioak ez, objektua bez
- Zientzia
- Helburuak: agerikoak edo ezkutukoak
- Zenbakarriak dira, dimentsio kualitatiboa dute
- Balioekin daude harremanetan, zehaztea zaila
- Objektua bera izanda ere, helburuak desberdinak izan daitezke:
 - Kristautasunaren helburu: karitatekoa. Funtzioa: norberaren arima zabaltzea eta gizartearen arazo batzuk konpontzea
 - Industrializazioarekin: pobrezia guztiarekin amaitu nahi zen
 - XX. Mendearen erdirako: aurreko ametsak zapuztuak zeuden. Arazoak estrukturalak zirela zioten.

5.4. HELBURUAK gizarte-langilearen jokabidean

- Gizarte-langile bakoitzaren jarrera ideologikoa hartu behar da kontuan
- Gizarteak sorrarazten dituen disfuntzioak konpontzea
- Besteentzat, aldaketa, gizartearen arazoei aurre egiteko, aldatu beharra dagoelako
- Teoria filosofikoak bakoitzak bere helburuak bilatzen ditu
- Eguneroko jardunean bi esku hartze mota nabarmentzen ditugu CONDEREN arabera:
 - Gizakiaren autonomia eta sustapena bilatzen dituen esku-hartzea dugu: gizakiaren pertzepzio- eta jokaera-bideak hobetzen ahalegintzen da. Gizarte ezinegonari aurre egiteko, razionalizatzeko gaitasuna indartzen saiatzen da. Erabiltzaileak onartuta duen pertzepzioari. Egoeraren autoebaluazioa: ekimena egoerari aurre egiteko: giza duintasuna eta autodeterminazioa. Gizarte-langintzak aholkularitza/hezitzaile lana egiten du.
 - Gizakiarekiko laguntza eta prestazioak bilatzen dituen esku hartzea dugu: gizakiaren garapena oztopatzen duten ingurune baldintzak aldarazten ahalegintzen da. Gizarteak onartuta dituen eskubideak eta laguntza-formak. Laguntza materiala eta intelektuala. Gisa gizarte-justizia, diskriminazio eza eta gizarte-ondasunen banaketa. Gizarte langileak gizarte-politikak diseinatzeko eta praktikara eramateko ardura du.

5.5. Gizarte-langintzaren BALIOAK:

- Indibidualismoa: demokrazia zabaltzea ezinbestekoa da gizarte langintzan. Erabiltzaileari norbanakoari bere egoera eta testuinguruan ulertu behar zaio.
- Ebaluatua izan behar da jarduera.
- HUMANISMOA

6. METODOA gizarte-langintzan:

Metodoa bide bat da

6.1. Zer da METODOA?

- Errealitatea (posible da errealitate desberdinak aztertzea) ezagutzeko hautatzen dugun tresna edo bidea (desberdinak izan daitezke: deduktiboa, induktiboa ... "belearen adibidea").
- Ez dago metodo bakar bat, gure helburuen arabera izango da eta hortaz, ez dago gizarte langintzaren metodo bakarrik bez.
- Metodologia metodoaren azterketaz arduratzen da (ADB. Rol playing)
- Teknika: zientzia batek bere esku dituen prozedurak edo baliabideak dira, metodoarentzat lagungarriak.
- Gizarte-langintzak metodoan ez du asko sakondu baina teknikan bai.
- Metodo baten barruan ereduak daude. Esku-hartze modu jakin bat da. Osagai batzuk dituenak:
 - Osagai teorikoak, ereduaren azpian daudenak
 - Analisirako osagaiak, errealitate jakin bati aplikatzea azaltzen dutenak
 - Teknikak (ADB. Konstituzioa)
 - Osagai funtzionalak, loturiko emaitzei lotuak
 - Osagai filosofikoak eta ideologikoak

6.3. Metodoaren FASEAK:

- Ikerketa / datu bilketa: informazioa bildu parte hartu nahi ditugun errealitatea ezagutzeko
- Diagnostikoa (iritzia): gertatzen denari buruzko iritzia, oraindik ez dagoena frogatuta.
- Plangintza: Antzemandako arazoak aldatzeko plangintza bat egiten dugu: epe labur, ertain eta luzean
- Gauzatzea: plangintza praktikan jartzea. (nork, noiz, non, noiz, zein metodo / teknika, gizarte langintzaren papera)
- Ebaluaketa: prozesu guztia. Ondorioak ateratzen dira hemendik. Hausnarketa bat da (diseinuaren, programaren eta emaitzen ebaluaketa)

6.4. ESKU-HARTZE MAILAK gizarte-langintzan:

6.4.1. BANAKAKO ETA FAMILIAKO gizarte-langintza:

- XX. Mendearen hasieran ez zaio garrantzi handirik ematen metodologiari.
- Mary Richmond izan zen gai horretaz arduratu zen lehenengotakoa: Casework : gizarte langintzak erabilitako lehenengo hurbilketa mota eta orain arte emaitza handiena izan duena.
- Hasieran, kanpoko eraginetan arreta.
- I. mundu gerra ostean, psikologiaren eta Freuden psikoanalisiaren eragin nabaria hartu zen eredu: psikosoziala
- 1940tik aurrera sintesi aroa: soziologia, psikologia eta psikiatriaren eraginez.
- Ereduak:
 - Arazoen konponketaren ereduak : Helen Harris Permanek
 - Eredu funtzionala: Otto Ranke
 - Krisi ereduak: Erich Linderman eta Gerald Caplan
 - Jokaeraren aldaketaren ereduak edo eredu konduktibista: Paulov eta Skinner

6.4.2. TALDEKO gizarte-langintza:

- Helburua banakako arrakasta, metodologia kolektiboa
- 1930eko hamarkadaren amaieran gizarte-langile batzuk konturatu ziren norbanakoaren harremanetan nolako eragin handia daukan taldea
- Ekarpak klasikotzat jotzen da Gisela Konopkaren XX. Mendeko erdi aldean egina
- Ereduak:
 - Gizarte helburuaren ereduak
 - Konponketaren ereduak edo eredu terapeutikoa
 - Elkarrekintzarako ereduak

6.4.3. KOMUNITATEKO gizarte-langintza:

- Helburu kolektiboa, metodologia kolektiboa
- Jatorria urruna
- Sistematizatu Estatu Batuetan 1920ko hamarkadan
- 1940ko hamarkadatik aurrera agertu zela jokabide autonomo gisa
- Hausnartu zen: pertsona batzuek dituzten arazoek familian eta inguruan eduki dezaketela jatorria
- 1960ko hamarkadan klasikoa egin den Murray Rossen ekarpenak hartzen dira
- Komunitateek ahalmena nahikoa daukate euren arazoak konpontzeko
- Helburuen artean, euren inguruan ongizateari bilatzen laguntzea herriartreki
- Helburu eta ekintza komunak burutzeko bideak zabaltzea
- Ereduak:
 - Herri bat garatzera bideratutako ereduak
 - Arazoen konponbiderako plangintzaren ereduak
 - Gizarte-ekintzaren ereduak

III. Gizarte-langintzaren egileak

7. Gizarte-langintzaren EGILEAK:

- 1) Laguntzaren beharra duen aldea: erabiltzailea
- 2) Laguntza eskaintzen duena: instituzio bat normalean
- 3) Bien arteko zubi-lana egiten duena: gizarte-langilea, normalean

7.1 GIZARTE-LANGILEA

- Gizarte-langintzaren kudeaketa egiten duena
- Instituzioetan eta erabiltzailearen artean zubi-lana
- Ez da eragile bakarra
- Bi adar
 - Gizarte-langintza egiten duten guztiei ematen zaie izen hori: boluntarioak ...
 - Baldintza akademikoak betetzen dituztenak soilik
- Jendeari laguntzea da bere lana

7.1.1. Gizarte-langileari loturiko KONTZEPTUAK:

- 1) Laguntza (funtsezkoa) beste baten edo batzuen alde egitea da batez ere gizarte langileen zeregina. Ez da zerbait ematea bakarrik (horri limosna deritzo), elkarlana bultzatzen du, jendea gai izan dadin eskaintzen zaizkion baliabideak bere kabuz erabiltzeko.
- 2) Onarpena Gizarte-langileak diren bezalakoak onartu behar ditu beregana doazen erabiltzaileak. Horrek ez du esan nahi onartu edo txalotu behar denik, baizik eta ulertu egiten dela egoea orokorra, eta erabiltzailearen egoera partikularra; agian damutua; agian inkontziente egindakoaren okerraz.
- 3) Ulermena Zentzu bitan uler daiteke: gizarte-langileak bere esperientzia eta jakituria erabili behar du aurrean duen arazoaren ulermen oso batera heltzeko eta bestetik, ulermen enpatikoa.
- 4) Indibidualizazioa (funtsezkoa) Bakoitzarekin desberdin jokatu behar dugu, pertsona diferenteak baikara.
- 5) Motibazioa (ezaugarri humanista) Askoz eraginkorragoa, jendeak gizarte langilearengana hurbiltzeko dituen arazoak aztertzea komenigarria da, arazoi horiek interesatzen zaigun ildotik bideratu ahal izateko
- 6) Kontzientziazioa (Marxistagoa) Pertsona gisa edo inguruan dugun gizartearen errealitateaz jabetzea
- 7) Trebakuntza Gizarte-langilea ez da konformatzen momentuko parte-hartzearekin. Ahalegintzen da erabiltzailea trebatzen bere kabuz arazoak konpontzeko kapaz izateko. Ahalegintzen da gizarte-langilearen esku hartzea beharrezkoa ez izaten

7.1.2. Gizarte-langilearen FUNTZIOAK:

- 1) Pertsona, talde edo komunitateekiko harreman zuzena: klasikoena. gizarte arazoak dituztenekin batera, arazo horiei aurre egiten eta konpontzen saiatzen. Laguntza zuzena, hasierako laguntza edozein eskaeraren aurrean. Giza, gizarte baliabideak eta materialak erabiltzea, orientabidea, informazioa eta aholku lantza eskubideei buruz
- 2) Ikerketa: Gizarte problematika aztertzea, gizarte langintzaren ikuspuntutik, gizarte ingurua aztertzea problematikaren neurria eta lehentasuna ezartzeko
- 3) Plangintza: Gizarte baliabide hobeak sortzeko plangintzan parte-hartzea- Plangintza taldeekin aritzea.
- 4) Prebentzioa: Problematika baten eragina esku hartzea murriztea: 1.maila, gertatu baino lehen, informazioa eta heziketa- 2.maila, arriskuan egon daitezkeenak larriago ez izatea- 3.maila, gertatu ondoren, eragina gutxitzea
- 5) Birgaitzea: Gizakia birgizarteratzea- kontzientzia sortzea- problematika baten ondorioak jasaten dituztenak batzen saiatzea.
- 6) Heziketa: Jendea heztearazoez jabe daitezen. Gizakiaren baliabideak garatzen laguntzea
- 7) Prestaketa: gizarte-langintzaren teoria eta praktika irakastea profesional berriak sortzeko.

7.1.3. Gizarte-langilearen ETIKA:

- Erabaki hauetan, norberaren irizpide moralek
- Sarah Banksek honela ezaugarritzen ditu:
 - Irizpide moralak gizarte ongizateari dagozkio, eta aldatu egiten dira denboran eta espazioan.
 - Irizpide moralek ekintzarako jarrera eskatzen diote gizarte-langileari. Hau da, gizarte langilea prest agertu behar da harturiko erabakiarekin bat datozen ekinbideei ekiteko.
 - Irizpide moralak antzeko kasu guztietarako balio beharko luke, desberdintasun nabaririk ez badago.
 - Irizpide moralak justifikagarriak izan behar dira, ahal den neurrian.
- Gizarte-langintzan hiru arazo etiko mota ageri ohi da normalean:
 - Norbanakoaren ongizateari eta eskubideei buruzkoak.- Erabiltzaileak ez du onartzen gizarte-langileak pentsaturiko irtenbidea. Talka egiten dute gizarte-langileak erabiltzailearen ongizaterako pentsaturiko irtenbideak eta erabiltzaileak erabakitzeko duen eskubideak
 - Ongizate publikoari buruzkoak.- Gizarte-langileak harturiko erabakiak mesede egin ahal dio ongizate publikoari, baina arazoren bat sortu erabiltzaileari. Talka egiten dute ongizate publikoak eta norbanakoaren ongizateak.
 - Bereizketa eta zapalketari buruzkoak.- Gizarte-langileak harturiko erabakiak on egin ahal dio erabiltzaileari, baina arazoak sortu (kulturalak, estrukturalak) bere inguruan. Talka egiten dute norbanakoaren ongizateak eta taldearen egonkortasunak.
- Arazo etiko hauek testuinguru historiko eta espazialean ulertu behar dira. baina beren testuinguruan kokaturik osotasunean ulertu ahal ditugu.

- Testuinguru horretan ulerturik, proposamen bat baino gehiago egin da gizarte-langintzaren irizpide moralak zeintzuk izan beharko liritekeen zehazteko. Proposamen bat baino gehiago egoteak berak absoluturik ez dagoela adierazten digu,
- Salcedok ondokoak agerrarazten ditu:
 - Norbanako, talde eta komunitateen eskubideen errespetua eta sustapena. Edozein egoeratan eta inolako diskriminaziorik gabe (ez jatorriagatik, ez sexuagatik, ez ezintasunengatik, eta abar).
 - Berdintasuna. Profesionalen aldetik eta erabiltzaile eta instituzioen arteko harremanetan.
 - Gizarte-justizia. Erabiltzaileak injustiziatik defendatuz, laguntzak zuzentasunez banatuz, eta injustiziak gainditzeko ekimenak sustatuz.
- Hala ere, proposamen pertsonalez gain, gizarte-langintza arduragarrantzitsuak hartzen dituen lanbidea da, gizarte-langile guztiek bete beharreko araubide batzuk ezarri ditu, jokaerak eta iritzia argitzeko eta bateratzeko asmoz: kode deontologikoak.
- Erabiltzaileari edo beste lanbideetako profesionali, gizarte-langilearengandik zer itxaron dezaketen jakingo dute eta. Beste aldetik, mesedegarri izango zaio, halaber, gizarte-langileari, kasu zailtan nola jokatu erakutsiko dio eta.
- Kritika mota nagusi bi zabaldu dira. Batzuek diotenez, kodeak alferrikakoak dira askotan, gizarte-langileek lan egiten duten instituzioek euren arau propioak dituzte eta. Gizarte-langileak instituzioaren arauak bete behar ditu halakoetan, eta kodea, orduan, bigarren mailan geratzen da, bete ezinik, instituzioak onartzen ez badu. Bestalde, beste kritika batek esaten du kode deontologikoek kolegiatuen estatus eta pribilegioak gordetzeko balio dutela, eta ez gehiago: erabiltzailea testuingurutik kanpo agertzen da, eta kodeak ez du inolako araurik ezartzen injustiziarik aurre egiteko.

7.2. Beste ERAGILE batzuk:

7.2.1. ADMINISTRAZIOKO TEKNIKOAK ETA ZUZENDARIAK:

- Hiru funtzio betetzen dituzte (hiri handiez hitz egiten hari gara): kudeatze, koordinatzea eta suspertzea.
- Honetan guztian, erabakigarria da zuzendariaren eta gizarte-langileen arteko harreman ona egotea.

7.2.2. POLITIKAK:

- Erakunde batzuk pribatuak dira, eta zuzendarien gainera erakundearen arduradunak egoten dira, zuzendariak eurak batzuetan. (goiko postuetan politikoak izan ohi dira.)
- Politikoek hauteskundeetan alderdiek publikoki defendaturiko programa aurrera eramatea daukate helburu. Alderdiaren arabera, hortaz, administrazioak era bateko edo besteko politika jarrai dezake. teknikoak eta zuzendariak gusturago senti daitezke alderdi batzuekin besteekin

baino, eta horrek eragina edukiko du alde bien arteko lankidetzan. Izan ere, askotan tirabirak sortzen dira politiko eta administrazioko langileen artean planak aurrera eramateko moduan.

- Politikoek epe mugatu baterako betetzen dute harturiko ardura, aldiro-aldiro hauteskunde prozesuak

7.2.3. BOLUNTARIOAK:

- Gizarte-langintzari oso loturik egon dira, gizarte-langintzaren forma zaharrenak baitira. Gaur egun, profesionalizatzen joan da eta antzinakoari boluntario deritzogu.
- Boluntario motak:
 - Sare informala: (gehienbat gu gara). Familia edo adiskideen loturez dena
 - Ohiko boluntarioak: Ongintzara dedikatzen den erakunde bati modu desinteresatuan zerbitzua eskaintzen diotenak.
 - Auto-laguntza taldea: Arazo baten inguruan laguntza eskaintzeko batzen den jende multzoa.
 - Gobernuz kanpoko erakundeak: Hainbat arlotan ekiteko, maila lokalean edo nazioartean aritzen diren erakundeak.
- Aldeko iritziak jasotzen ditu, gauza batzuk gizarte-langileak baino hobeto egin ahal ditu eta:
 - Jende arruntari gizarte-laguntzara dedikatzeko aukera ematen dio.
 - Zerbitzu alternatiboen arteko hautaketa-aukera eskaintzen dute.
 - Zerbitzu ofizialak baino malguagoak izan ahal dira; arrisku gehiago onar ditzakete.
 - Zerbitzu ofizialak baino kokapen hobean egon daitezke kasu batzuetan laguntzeko (ordutegiagatik, lekuagatik ...).
 - Zerbitzu ofizialak baino irudi zabalagoa aurkez diezaioke jendeari, eta erakargarriago izan.
- kontrako iritziak ere jasotzen ditu:
 - Boluntarioak Administrazioak bere gain hartzen ez dituen arazoak konpontzen ditu eta, beraz, honen aurpegia garbitzeko balio du, administrazioaren utzikeria salatu beharrean.
 - Boluntario batzuen asmoa boterea lortzea edo jendea manipulatzeko izan daiteke.
 - Boluntarioak gizarte-langileari dagokion lana egin dezake, baina ezer kobratu gabe. Hori dela eta, gizarte-langile batzuek ez dute nahi izaten boluntarioen laguntzarik.
 - Boluntarioak gizarte-langintzaren ohiko ikuspegi paternalista iraunarazten du, behartu eta ezinduei laguntza hutsa ematera mugatzen dena, eta horrek talka egiten du gizarte-langintzak aldarrikatzen duen joera eraikitzaile eta aktiboagoarekin.

7.2.4. Gizarte-langileak eta gizarte mugimenduak:

- Ezkerraren pentsamenduari loturik egoten dira askotan, eta ndiharduten gizarte-atalaz gain, gizarte osoarentzat eredu alternatiboa bilatu ohi dute.

- Gizarte-langilearentzat ere erreferentzia garrantzitsua izan daitezke, askotan interes berdintsua bila dezakete eta, helburuak desberdinak izan arren.
- gizarte-langileak hurbil-hurbiletik ezagutu eta jarraitu behar ditu bere inguruan ari diren gizarte-mugimenduak. + elkarlanerako prest agertu beharko lirateke.

7.3. Erabiltzaileak:

- Gizarte-langintzaren hartzailea da.
- Gizarte-langileak laguntzen duen aldea osatzen du erabiltzaileak. Ez da pertsona bakar bat, halabeharrez, kolektibo bat ere izan daiteke eta. Horrez gain, erabiltzailea pertsona bakarra izanda ere, argi eduki behar da bere arazo horretan pertsona bat baino gehiago sartzen dela, gizartea bera ere bai.

7.3.1. Erabiltzaileari loturiko kontzeptuak:

- Autodeterminazioa. Erabiltzaileak erabakiak era askez hartzen dituela adierazten du, eta horrek esan nahi du, alde batetik, horretarako baldintza demokratikoak badaudela; eta bestetik, norbanakoa bere indibidualtasunaz kontziente dela.
- Parte-hartzea. Erabiltzaileak, gizarte-langilearekin batera, parte hartzen du gizarte-langintzan sortzen den harremanean. Parte-hartze autonomoan, erabiltzailea oso aktibo ageri da, eta harremanaren nondik norakoa markatzen du. Parte-hartze zuzenduan, erabiltzaileari non eta nola hartu parte adierazten zaio.
- Autolaguntza. Norbera izatea norberaren arazoak konpontzeko motorea. Eragilearen lana erabiltzailea fase horretara heltzen bultzatzea da.